



4 UDALA

Udalaren funtzionamenduari buruzko galdeketa

Udal zerbitzuak, politikariak eta orain arteko lana ebaluatuko dituzten galdeketa prozesua aurkeztu du Udalak. Helburua udal langileek, herritarrek eta herriko elkarteek udalaren funtzionamenduan duten iritzia jasotzea da. Guztira 400 herritarren iritzia jasoko da telefono bidezko inkestan eta emaitzak publikoak izango dira.



5 ELKARRIZKETA

Irakurleen txokoa aurkeztuko dute asteartean

Euskal literaturaz gozaten duten herritarrek txoko berezia izango dute Lasarte-Orian urritik aurrera, irakurle-txokoa. Hilabetero liburu bat irakurrita, hura izango dute hizpide Uxue Alberdiren idazlearen laguntzaz. Ekimen berria asteartean aurkeztuko da Villa Mirentxun eta plazaz plaza ibiltzen den idazle eta bertolari ezagunarekin elkarrekin gara taldean irakurtzearen abantailak zein diren jakiteko.



Ruñeako Extremadurak etxetik gurera etorritako Raices y Brotes taldeak Jaizkibel ostein, afarian, Ángel Barredari omenaldia egin zioten 25 urtez elkarteko kide izateagatik.

Guadalupeko Amaren omenez

Extremadurako Autonomia erkidegoan jaio eta herrian bizi diren lasarteoritarren jai-bilgune izan da Jaizkibel plaza egunotan

Extremadurako Etxeak 1978. urtetik etenik gabe antolatzen diharduen festak inoiz baino herritar gehiago bildu ditu asteburuan, Jaizkibel plazan muntatutako txosna eta eskenatokiak arrakasta izan dute eta bereziki jendetsuak izan dira Ama Guadalupekoaren omenezko meza eta larunbat eguerdiko paella jana herrikoia.

Extremadura Etxeak hiru eguneko egitarau oparoa antolatu du asteburuan eta eguraldi petralak ezin izan du herritarren festa gogoa zapuztu.

Ostiralean eman zitzaizen hasiera ospakizunei, Extremadurako ereserkia sendotasunez abestu zuten banderen igotzean eta Adarra kaleko egoitzan extremadurak alde-reta dastatu ostean gaueko

ordu txikietaraino luzatu zen festa batez ere jende gaztearen festarako gogoa medio.

Meza eta paella jana

Larunbata iristearekin batera, ekitaldi jendetsuenen txanda izan zen. Eguerdian meza ospatu zuten Extremadurak Etxean eta eguraldi txarrak kanpoko terrazan meza ospatzea oztopatu zuenez, egoitza barruan inprobisatu zuten

aldarea Ama birjinaren irudia Guadalupeko monastegiaren argazkiaren aurrean ipiniz. Juan Luis Murua apaizak gidatu zuen zeremonia eta mezan elkarteko kide izan eta aurten zendu direnengatik egin zuten otoitz.

Goizean goizetik ordea, hasiak ziren haurrentzako jolasak prestatzen. Umeek ederki pasa zuten Jaizkibel plana era guztietako jokoen, eta jakina, eguerdirako gosez ziren. Beraz, prezio merke eta ekonomikoak lagunduta, haur gazte eta helduek paella jana egin zuten Extremadura Etxean. Motz geratu ziren sukaldariak, bosta paella prestatuta bazituzten ere, azken unean beste

bi egin behar izan zituzten ia ehun lagunei jaten emateko.

Arratsaldean mus txapelketa eta Jaizkibel Plazako emanaldiaren ostean, gauean afaria egin zuten elkartean. Udal ordezkariak, Jose Antonio Vilaboa gipuzkoako probintzia-etxeen presidentea, Semblante Andaluz eta Donostiako zein Errenteriako Extremadurak Etxeatoko lehendakariak egon ziren gonbidatu gisa.

Festen azken egunean, Semblante Andaluzeko Zambra taldeak omenaldia eskaini zuen eta urteroko bola-joko txapelketan emakumeek euren abileziak erakusteko aukera izan zuten. Argazki guztiak txintxarri.info-n.

aek
Euskara praktikoa

ikasi euskara
eman izena aek-n

Azterketa ofizialak eta titulua homologatuak www.aek.org

- **AUTO-IKASKUNTZA**
- **Euskara agiriak**
- **Hizkuntza perfilak (1-2-3)**
- **Euskalduntzeko maila guztiak**

Geltoki kalea 17, behea • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 372863

lasarte@aec.org

Lehenengo egunetik hite egingo duzu, erabilera onarritutako metodologiari esker.

Adituak dio



Gorka Alvarez
Futbol entrenatzailea

Txanpions

azko denboraldian errealek lorturiko sailkapen bikainaren ondorioz, txapeldunen ligan parte hartzeko aukera izango du aurtengoan taldeak.

Euskal kutsua emate aldera edo "CH", "TX"-rengandik aldatu dute zenbaitek. Gipuzkoa osoan eta nola ez gure herrian sortu den ilusio giroa handia izan da baina kasu hauetan gertatzen den euforia neurrigabea neurtzen ikastea, ez litzaiguke batere gaizki etorriko. Oraingo egoera hau norbaitek merezi badu, hori errealezalea da. Azken hamarkadan errealeko jarraitzaile izatea ez da gauza erraza izan. Arazo ekonomikoek, bigarren mailara jaitsierak eta amaitu ezingo genukeen zerrendak, taldearen izen ona eta zale-tuegana heltzeko indarra galtzera eramane dute taldea.

Errealzale naizen aldetik ezin uka, poza sentitzen dudala azken sasoi honetako ibilbidea dela eta. Kaleetan errealeko kamiseten loraldi berria agertu da. Garai batean "Satrustegi"ren izena zera-maten kamiseta ugari ikusten zen kaleetan. Gaur egun Messi, Cristiano... perretxikoen moduan hazi dira gurean.

Horregatik, balora dezagun lortutakoa, goza dezagun udaberri berri honekin eta ikus ditzagun haurrak parkean "Agirretxe"ren izena bizkarrean dutela jolasean, baina ez dezagun sekula ahantzi nondik gatozen eta zer pasa behar izan dugun gaur egungoa lortzeko. Perretxikoak, urteko sasoi batean iritelen dira, ez dezagun burua gal "txanpinoien" erreinuan eta disfruta dezagun loraldi honetaz, hazi berriak erein eta zuhaitz xume baina sendo bat bihurtzeko eta ez denboraldi baterako perretxiko. Aupa Real!

Ilusioa doan da

raila hasterekin batera askorentzat oporrak amaitu dira, TXINTXARRIKO lantaldea horien artean, nagiak jota zaila izaten da egunerokotasunean sartzea. Hori bai, behin hasita karrerilla hartu eta konturatzera Gabonetan egongo gara...

Hala ere, herritar askorentzat hasi berri den ikasturteak badu aurrekoek izan ez duten xama. Hori gogotsu ekiteko arrazoi bat gehiago. Datozen hilabeteak bereziagoak izango dira realzaleentzat zalantzarik gabe.

Jarraitzaile txuri urdinek euren futbol taldea European lehiatzen ikusteko aukera izango dute eta aukera dutenek, Ingalaterrara, Ukrainara eta Alemaniara jarraituko dute; Manchester United, Xakhtar Donetsk eta Bayer Leverkusenen

aurka ikusteko. Aipatu behar da, dagoeneko batzuek lehen bidaia eginda dutela Lyonera.

Krisi ekonomiko honetan murgilduta, beti berdinari egiten diogu erreferentzia baina hala da, futbolaz gaizki hitz egiten bada ere, askorengan ilusioa eta bizipoza ekarriko du. Ilusioa doan izateaz gain, kutsakorra ere bada, ez ordea Europatik jarraitzea edota Anoetan bertan partidak ikustea beraz zergatik ez horri eutsi?

Ilusio horrek irauan dezala datozen hilabeteetan eta realzaleek goza dezatala hainbeste maite duten taldearekin.

Bide batez eta eskatzea libre denez, ea uskara entzuten dugun Mundu osora emititzen diren prentsa agerraldi horietan.

Talaiatik

Hitz eta pitz

Pozik zaude Real Championsera iritsi delako?



Miguel Angel Castro
Realzalea naiz eta oso pozik nago bai. Partida guztiak ikusteko asmoa daukat noski, betidanik egin dut eta aurten arrazoi gehiago dago beraz hor egongo naiz taldea animatzen. Nire ustez taldea juxtu xamar iritsiko da Championseko final laurdenetara baina hala ere, talde ona dugula uste dut eta partida politik ikusiko ditugula. Gogoia daukat lehenengo partida ikusteko.



Pello Piñales
Realzalea naiz betidanik eta ilusio handia egiten du taldea European ikusteak. Lehen Anoetara joaten nintzen baina orain ezin dut. Gogoia daukat taldea datozen hiru partida hauetan nola moldatzen den ikusteko. Diru gehiago izango bagenu agian fitxaketa on horietako bat egingo genuke baina... irrikitan nago Championseko partidak ikusteko.



Haizea eta Labrit
Oso pozik eta ia urduri. Gu Anoetara joaten gara bazkide garelako eta animo guztiak emango dizkiogu taldeari, beti hor egongo gara. Championseko lehenengo partidak gaintuko dituela uste dugu, oso motibatuta daude jokalariek. Ligan ikusten da nekatuta daudela eta kalte egingo die agian. Nahi genuke taldea ere babestu kanpoko partidetan baina ezingo da...



Asier Razas
Oso pozik nago taldearen lanarekin eta Anoetan asko animatuko dut. Nik uste dut lehenengo fasea pasako dugula, gure mailako aurkariak direlako. Hala ere, ez dut uste taldea daukagunik hiru lehiaketetan maila onean aritzeko, nekatuta egongo dira eta Ligan kalterako izango dela pentsatzen dut. Zale bezala ilusionatuta nago aurretik dugun futbol denboraldi berriarekin.

Iruditan

Reala Lasarten



1945. urtean inauguratu zuten realeko taldeek Michelingo zelai zaharra. Gure Gipuzkoa Vicente Martin

Lasarte eta Oriako taldeak batzuek asmoz sortu zen herriko lehen futbol taldea 1923. urtean "Biyak Bat". Honek 200 bazkide zituen hasieran eta bakoitzak 1peztako kuota ordaintzen zuen. Zaletasuna orduaroko handia zen herrian, 1945ean inauguratu zuten Michelin enpresak zelai dotorea eta egun horretan Realeko jokalariek egin zuten erakustaldia. Ordurarte hipodromoko zelaian jokatzen zuten herriko taldeek eta ondoren Michelingo zelaia kokatu zen Arkaiztan. Futbol talde asko izan dira urteetan herrian sortutakoak eta kirol honekiko zaletasuna ere honen mailakoa izan da.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttaku Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidier Azurmendi, Nerea
Eizaguirre, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpirtate, Edu Galardi

Informazioa:

Xabier Arnoz

NAGUSIAK

Nagusien Omenaldia urriaren 1etik 8ra

Biltokiko bazkide ez direnen parte hartzea lortu nahi dute

Gaur hasiko da ekintza guztietan izena emateko epea. Aurtengoan lehenengoz aste berezi honi hasiera emateko txupinazoa botako dute jubilatuen biltokitik. Antolatzaileek bertako bazkide ez direnen parte hartze handiagoa lortu nahi dute.



Udaletxeko eta jubilatuen biltokiko ordezkariak asteazkeneko agerraldi jendetsuan.

Maidere AZURMENDI

Herriko nagusiek udalarekin batera urriko lehenengo asterako ekintza egitarau oparora antolatu dute. Pablo Barrio alkatea eta Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzu eta batzorde buruarekin zuten jubilatuek aurkezpena asteazkenean. Denetarik izango dute, ikuskitzuna, txapelketa ezberdinak eta ibilaldi neurtua urtero egiten den bazkaria ahaztu gabe. Pablo Barriok baita Joxe Mari Bardajik ere hitz politik izan zituzten Mertxe Galdosentzat.

Urriaren 1ean lehenengoz astea jai giroan hasiko dute txupinazoa jaurtiz. Egun horretan bertan toka, igel, bote eta bingo txapelketak egingo dira Isla plazan eta azkena biltokian bertan. Urriaren 2an Kike Biguri bakarrizketalariaren emanaldia ikusi ahal izango da jubila-

latuen etxean. Urriaren 3an berriz, jubilatuen etxeko soinketa eta aerobic taldeen erakusketak izango dira Okendo plazan. Urriaren 4an Sun Magoaren ikuskizuna izango da zaharren biltokian. Urriaren 5ean berriz, Martxa Erregulatua egingo dute bigarrenez Okendotik eta honetan parte hartzeko dei berezia egin dute "120 bikote lortu nahi ditugu" eta dantza txapelketa ere egingo dute.

Igandean San Pedro parrokian meza, abesbatzaren emanaldia kultur etxean, bazkaria Michelingo frontoian eta dantzaldia izango dira. Astelehenan urriak 7 Manuel Lekuonan ONCEko antzerki taldearen lana ikusi ahal izango da eta egitarauari amaiera emateko jubilatuen 35. urteurrenaren ospakizuna egingo dute. Meza eta luntxa egingo da Brigitarren komentuan goizean eta arratsaldean opa-

riak eta afari merienda zaharren biltokian. Ondoren dantza egiteko aukera izango dute festari amaiera emateko.

Parte hartzea sustatuz

Gaurtik izena eman daiteke jubilatuen etxean ekintzetan parte hartzeko. Bereziki biltokiko bazkide ez direnei gonbitea luzatu nahi diete "gustatuko litzazuke biltokian ibiltzen ez direnek ere ekintza hauetaz gozatzea". Igandeko bazkariari dagokionez, 800 lagunentzako lekua izango da eta 8 euroko kostua. Parte hartzeko Lasarte-Orian erroldatuta egon behar da eta 1947. urtean edo lehenago jaioa izan.

Txartelak jubilatuen etxean egongo dira eta Gorka Lizarragak denentzat lekua egongo denez, lehenengo egunetan tiketak erosteko ilarrak ez egitea gomendatu zuten.

PSE-EE

Eskola materiala jasotzeko ekimena

Lasarte-Oriako PSE-EEK elkartean kanpaina jarri du abian. Jesus Zabalosek aurkeztu zuen eta honen helburua herriaren egoera ekonomiko zaila bizi duten familiak laguntzea da. Zehazki, ikasturte berrirako eskola materiala bilduko da irailaren 13ra bitartean.

Eskola materiala Casa del Pueblon 18:00etatik 20:00etara jasoko da. Bertan utzi ahal izango dira liburuak, ipuinak, margoak, estutxeak, koadernoak eta erabilgarri dauden mota horretako gauzak. Ez dira jasoko ordea, egun erabiltzen ez diren eskola-liburuak. Material guztia herriaren behar ekonomikoak dituzten pertsonekin lan egiten duten Caritas edo Berpizturi emango zaio ondoren eurek eskolan seme-alabak dituzten familien artean bana dezaten.

Materiala eramatean herritarrek txartela jasoko dute zozketa batean parte hartzeko. Irailaren 13an, ostiralean ONCE zozketan saritutako zenbakiaren azken bi zifrak dituenak Aterpeko dendetan erabiltzeko 100 euroko balea eskuratuko du.

UDALA

Erdi Aroko azoka eta Inauteriak

Erdi Aroko azoka egingo da ostiralean hasi eta igandera bitartean lehenengo aldiz Isla plazan. Hau dela eta udalak Zumaburuko dendari eta tabernariekin bilera bat egingo du bihar, asteartean 10:00etan Villa Mirentxun. Honen helburua azokaren inguruko xehetasunak azaltzea izango da. Informazio gehiago eskuratzeko 943 376 179 zenbakira deitu daiteke ere.

Bestalde, Gazteria eta Festak departamentuak, herriko konpartsa guztiak 2014. urteko Inauterien antolaketa bilerara gonbidatu ditu.

Lehen bilera honek 2014ko prozesuari emango dio hasiera, baina helburu nagusia 2013. urteko Inauterien balorazioa egitea izango da. Honetaz gain, datorren urterako gaia zein izango den erabakitzeke zein prozesu martxan jarri ere adostuko da.

Konpartsa guztietako ordezkariak, edota 2014. urtean konpartsa gisara irten nahi duten koadrila guztiak gonbidatuta daude. Bilera, irailaren 12an, osteguna, izango da arratsaldeko 19:00etan, Kutlur Etxeko 3. solairuko gelan.

BAZKARIA

Betizu jana Basaundi plazan

Irailaren 14an, larunbata 14:00etan Basaundiko plazan betizu jana egingo da. Menua honakoa izango da, sarrerakoak egongo dira, betizua burruntzian erreta, 1kg kalkulatu da pertsonako beraz gosez geratzeko arriskurik ez dagoela diote antolatzaileek. Entsaladaz lagunduko da haragia, postrea, edaria, kafea eta kopa barne. Tiketak dagoeneko salgai daude Buruntzazpi elkartearen eta Txoko tabernan 25 eurotan.

Abuztuko txokoetan haur eta gaztetxoak primeran

Udako txokoak jendetsuenak uztailekoak izaten jarraitzen duten arren, abuztuan ere geroz eta gehiago dira hauetan parte hartzen duten haur eta gaztetxoak.

Aurtengoan parte hartzaileek Lasarte-Oria Tour-en dinamikan murgilduta pasa dute abuztua. Egunero txirrin da hartu eta herriko auzoetan garatu dituzte hamaika ekintza. Kotxe karrera Zirkuitu ibilbidean, sorginen kondairak Sorginaren zubian, Sorgin dantza Oriaren eta Ur jolasak herriko parkeko belazetan (Tximistarreta, Andatza eta Atsoak).

Baserrira ezagutzen

Hauetaz aparte, Zabaletako Soiane baserrira bisita egin zuten eta sagardoa egiteko

prozesuari buruzko hainbat gauza ikasi ahal izan zituzten. Hilaren bukaeran Okenedo plaza erabili zuten oso balorazio eta harrera positiboa izan duten bi ekintza berezi egiteko. Lehenengoa, herriko artista eta artisauak omendu nahian, Artisau azoka egin zuten goxoki truke. Poz-pozik bukatu zuten haurrek baita bezeroek ere.

Borobiltzeko, ostiralean, azkenaldi honetan hain arrakastatsua den "Pintxo Potera" gonbidatu zituzten gurasoak. Bertan gurasoak, haurrak eta begiraleak tarte batean elkarrekin egoteko aukera izan zuten txokoaren dinamikaren baitan.

Txangoak

Lasarte-Orian egindako ekin-

tzaz aparte, kanpora ere atera dira hilabete honetan. Besteak beste, Orioko hondartzan izan ziren eta Astigarraga eta Urnietako igerilekuetan. Urnietan egin zuten bibak. Azkeneko astean, Donostiako Aquarium-era joan ziren egun pasa itsasoko sekretuak ezagutzera.

Herria ederki ezagutu dute eta herriko bazterrek baita bizilagunek ere haurren berri izan dute hainbat ekimenen esker. Besteak beste, beraien ustez parke batek izan behar lukeen itxura marraztu eta erakusketak txukuna osatu zuten herriko parke desberdinetan euren lanak zintzilikatu. Primerako abuztua izan dela diote begirale eta haurrek.



Soiane baserrira egindako bisita goian eta behean "artisau azoka" berezia.

Udalaren funtzionamenduaz galdeketa egingo da

■ Udal zerbitzuak, politikariak eta orain arteko lana ebaluatuko dituzte herritarrek

Pablo Barriok eta Alaitz Mendizabalek aurkeztu zuten osteguneko datoen asteetan burutuko den galdeketa prozesua. Honen helburua udalaren funtzionamenduaz herritarrek, herriko elkarte eta udal langileek duten iritzia jasotzea da. Emaitzak publikoak izango dira eta "hartara lan egiteko tresna baliogarria izango da udal departamentuentzat". 400 herritarren iritzia jasoko da telefono bidezko inkestan. Hau astelehenegun egiten hasiko dira eta herrian egiten den mota honetako lehenengo azterketa izango da.

Maidier AZURMENDI

Osteguneko aurkeztu zuten Udaletxe berriaren atarian udalaren lana baloratzeko egingo den azterketa.

Alaitz Mendizabal Parte Hartze batzorde buruak azaldu zuenez, "udalaren funtzionamendu egokiaren oinarriak parte-hartzea izan behar duela irmoki sinesten dugu eta horregatik hobetzen lagunduko digun balorazio osoago eta integral bat egitea oinarritzeko iruditzen zaigu".

Atal bat baino gehiago izango du azterketa honek alkateak eta zinegotziak azaldu zutenek.

Alde batetik inkesta telefoniko bat egingo da, bestetik udalerriko elkarteetara gerturatzeko asmoa dute eta azkenik, Udaletxeko langileei

eskatuko zaie egiten den lana ebaluatzeko.

Guzti hau, hurrengo hilabeteetan burutuko da eta lehenengo pausoa inkesta telefonikoa izango da, gaur bertan hasiko dena.

Hurrengo hiru asteetan egingo da inkesta telefonoz eta 400 herritarren iritziak jasoko dira. Edukiari dagokionez, "hasieratik ahal izan den neurrian guztien iritziak barneratzeko nahia izan da. Horretarako, Udalean ordezkariak duten alderdi guztiei ekarpenak egiteko aukerak eman zaizkie, azkenik, udal funtzionamenduan ardurak dituzten guztiek lagundu dutelarik" azpimarratu du Mendizabalek.

Galderetan udal zerbitzuak, politikariak eta orain arteko lana ebaluatuko da. Udalarentzat hausnarketarako



Pablo Barriok eta Alaitz Mendizabalek aurkeztu zuten osteguneko udalari buruz egingo den inkesta.

eta analisi tresna ona izango da azterketa hau eta etorkizuneko erabakiak hartzeko garaiak lagungarria izango zaiela uste dute.

Kritikei erantzuna

Alaitz Mendizabalen hitzetan ideia garatzen hasi zirenean alderdi politiko baten kritika jaso zuten, "inkesta egitea alderdi politikoan lana zela esanaz eta honek izango zuen kostua salatuz. Gure aldetik, argitu nahi gure,

gure intentzio ez dela interes partidistatik abiatutako galdeketa sekretu bat egitea kritika haietatik ondorioztatu zitekeen bezala. Guk Udaletxearen lanaren azterketa egin nahi dugu, azterketa publiko bat, herritar guztiek eskura izango dutena eta udal funtzionamenduan herritarren parte-hartzean pauso bat gehiago ulertzen duguna".

Azterketa ahalik eta lasterren publiko egin nahi dutela azpimarratu du alkateak a-

rraldian "epe zehatzak ezin dira aipatu baina bi edo hiru hilabeteetan nahi gureku bukatuta eduki".

Bide batez herritarrei telefonoz egingo den inkesta erantzutea eskatu die "mota askotako inkestak erantzuteko eskatzen digute eta jendeak telefonoa eskegi ohi du, honakoak balio handia du eta erantzuteko eskatuko nieke herritarrei".

Aztiaren enpresak burutuko du azterketa lan hau.

Azkarate eta Benitezen diseinu grafikoaren lanak Jalgin

Jalgin irailan ikusi ahal izango diren koadroak aurkeztu zituzten Unai Azkarate eta Ion Benitezek, modu esanguratsu batean gainera. Ostiral arratsaldean kafe antzokiko paretetan euren artelanak eskegitzen ari zirenean, aurkezpen moduko kontzertu bat eskaini zuten ostiral arratsaldeko poteoan zebilen jendearen aurrean estilo askotako musikak nahastuz.

Paisaiak eta formak

Bi motatako lanez gozatu ahal izango dute Jalgi kafe antzokira hurbiltzen diren herritarrek irailan.


Batetik, Azkaratek paisaje desertikoak eta collage artistikoak ditu ardatz bere koadroetan. Bestetik, Ion Benitezek forma ilustratiboetatik abiatuta egindako lanek diseinu gra-

fikoen mundura sartzen gaituzte bete betean.

Bataren zein besteren obrek badute puntu komun bat, iluntasuna dute oinarri, baina koadro guztiek dute kolorea ematen diren puntu dizdiratsuren bat, koadroari arnasa eta arintasuna ematen diena.

Aurkezpen berezia

Erakusketak aurkezteko modu berezia aukeratu zuten bergarrek, Unai Azkaratek momentutxo batez irudi grafikoak alde batera utzi eta kitarra elektrikoaren sokak hartu baitzituen kontzertu "anarkiko" bat eskaintzeko. Jalgiko eskenatoki gainetik eskerrak eman zizkien antolatzaileei eta baita bere kide Ion Benitezi ere, bien artean erakusketak osatzen laguntzeagatik. Ez zuten lehen aldian Azkater



Unai Azkarate artista Azkater Peloxen larruan jarri zen Jalgin emandako kontzertu akustikoan, alboan Ion Benitez eta bere lanak.

Peloxek Lasarte-Orian, aurretik kontzerturen bat edo beste emana zuen eta herrian gustura sentitzen zela aitortu zuten Unai Azkaratek Azkater Peloxen larruan jarrita.

Behin emanaldia amaituta, Benitezek prestatutako patata tortila pintxoak dastatu zituzten Jalgin bertan, euren aurkezpena ikustera joandako begar koadrila batekin.

Kontzertua hasi aurretik erakusketak jartzerakoan izandako arazoak konponduta eta ahaztuta zeudela, arratsalde polita igaro zuten bi mutil gazte bergarrek.

Uxue Alberdi Idazlea

“Taldean hobeto irakurtzen da”

Asteartean aurkeztuko da Irakurle-txokoa Villa Mirentxun, arratsaldeko 18:30ean

Euskal literaturaz gozatzeko duten herritarrek txoko bereziki izango dute Lasarte-Orian urritik aurrera, irakurle-txokoa. Hilabetero liburu bat izango dute hizpide, Uxue Alberdiren idazlearen laguntzaz. Ekimen berria asteartean aurkeztuko da Villa Mirentxun.

Nerea EIZAGIRRE

Uxue Alberdi idazle eta bertsolaria izango da Lasarte-Oriako irakurleak euskal literaturan murgilduko dituen pertsona. Harekin izan gara solasean irakurle txokoen berri gehiago jakiteko.

Zer da irakurle-txokoa?

Irakurle txokoak edo klubak aldi berean biltzen diren irakurlez osaturiko taldeak izaten dira.

Aldiro, aurrez adosturiko liburu bat irakurtzen dute kide guztiak. Ondoren, elkarrekin komentatzen dute liburua; hainbat gai, genero, idazle eta estiloren inguruko solasaldiak eta gogoetak sortuz.

Zein da irakurle-txokoaren helburua? Jendeak irakurtzea? Literatura sustatzea?

Taldeko kide bakoitzak helburu propioak izan ditzake: norbere buruari irakurketa-disziplina sortzen laguntzea, literaturazaleatasuna ingurukoekin partekatzea, idazleen sormen-prozesua ezagutzeko, euskal literaturaren nondik norakoak ezagutzeko eta sakontzea, hainbat gairi buruzko solasaldiez gozatzeko...

Idaztea eta irakurtzea bakarlan gisa ulertzen ditugu sarri, baina taldean hobeto irakurtzen ikasten da, hamaita begik bik baino gehiago ikusten dute beti, irakurle bakoitzari testuaren alderdi desberdinek ematen diote arreta, ikuspuntuak trukatu dira, zaletasun berberaren bueltako harremanak sortu...

Edonork parte hartu dezake irakurle-txokoa?

Gogoa duen edonork. Ez du axola asko irakurria edo irakurketan trebatu gabea izateak. Interesgarriena talde heterogeneoak sortzea da, adin, gustu, esperientzia, lanbide eta sexu desberdineko jendea; literaturak sorturiko ikuspegiak, gogoetak eta emozioak elkartrukatzeko.

Zein da irakurle-txoko baten dinamika?

Talde guztiak dira desberdinak, taldea osatzen duten pertsonen sortzen dute dinamika propioa.

Normalean, liburuak eragindako inpresioez jarduten gara hasieran, gaingiroki; eta gero sakontzen da gaietan, pertsonaietan, sinesgarritasunean... Askotariko solasaldiak

sortu ohi dira: liburuaren estiloari buruzkoak, tonuari buruzkoak, istorioari buruzkoak... Liburu batek beste liburu batzuetara eramaten gaitu, bizi izandako esperientzietara, beste garai eta geografía batzuetara... Abiapuntu komun batetik abiatu eta elkarriketa sortzen da.

Eta zein izango da zure lana?

Irakurgaiak proposamenak egingo dizkiet taldekideei eta denon artean adostuko dugu zein liburu jorratu.

Hileroko juntadizoaren aurretik hautatutako liburuari buruzko kritikak eta elkarrizketak bidaliko dizkiet parte hartzaileei, idazleak eta liburuz gehiago jakin dezaten.

Neu arduratuko naiz bi hilean behin idazle bat geure artera gonbidatzeaz ere, eta beti eramango ditut hizketa piztu dezaketen gaiak, hari-muturrak, inpresioak...

Eztabaidetan sobera ez interbenitzen saiatzen naiz, beste bat gehiago izaten, baina sua ez itzaltzeko ardura hartzen dut neure gain. Normalean, hasieran, taldea oraindik egin gabe dagoenean, gehiago parte hartzen dut, giroa pizten ahalegintzen naiz, baina kideek laster hartzen dute konfiantza eta euren kabuz aritzeko mekanika.

Beste irakurle-txokoetan ere dinamizatzaile lana egiten

duzu. Zu idazle izateak lan hori errazten al du?

Literaturazale amorratu naiz eta oso gustura egiten dudana da. Egunerokoan ez da erraza kalean, tabernan, etxean... literaturari buruzko solasaldiak izatea, eta luxua da grina bera konpartitzen duen jendarekin hitz egitea.

Dinamizatzaile lanetan hasi aurretik idazle gisa eza gutu nituen irakurle-txokoak, eta beti erakarri izan naute. Harkaitz Canok dio literaturak klubak hil-beila koskorak direla, “idazle edo liburu baten zelebrazioa eta iruzkina, gorpua (idazlea/liburua) bertan dela (edo ez)”, eta inon ikustekotan hi-beila koskor horietan ikusten duela literaturaren etorkizuna.

Gaur egungo euskal literatura bakarrik landuko duzue? Edo antzinakoa eta itzulpenak ere landuko dituzue?

Taldekideen interesen arabera izango da hori, baina jarduten naizen beste taldeetan euskaraz sorturiko literatura (argitaratu berria eta argitaratu zaharra) eta euskarara ekarritakoa, itzulpenak, izaten ditugu mintzagai.

Urriari izango da lehen saioa,

zein da landuko den liburua?

Miren Agur Meaberen “Kristalezko begi bat”, eta idazle gurean izango da, harekin solasteko, galderak egiteko eta ikuspuntuak partekatzeko aukera izango da, beraz.

Beraz, beste irakurle txokoean egiten den legez, idazleak gonbidatuko dituzue?

Aipatu legez, urrian Miren Agur Meabe etorriko da eta abenduan Harkaitz Cano “Twist” eleberriaz jardutera. Gerokoak taldekideon artean erabakiko ditugu.



LANDER GARRO



Zulo aretoan musika, hitzaldia eta rap doinuak asteburuan.-

Ikasturtea amaitu bezala hasi du Zulo aretoak, hau da, ekintzaz ekintza ia arnasarik hartu gabe. Ostiralean Maputxeek bizi duten egoera zaila herritarrei hurbildu asmoz hitzaldia eta Bordeletik gurera etorri den Guaka taldea izan dira. Hegoamerikako gizatalde honek Espainiaren konkistaz geroztik bizi duten egoera salatzen asmoa zuten bi ekintzek eta bai kontzertuan eta bai hitzaldian jende andana gerturatu zen. Larunbatean berriz, Sua Fest jaialdia eta txapelketa arteko nahasketa egin zen, genero indarkeria eta arrazakeria salatu asmoz abestu zuten partaideek erritmoz erritmo eta errimaz errima. Honen ostean, Bartzelonatik etorritako URS & Dj ASYLUM-en emanaldia eta gipuzkoar DJ talde baten emanaldia izan ziren entzungai ordu txikietara arte.



Ezkerrean Bordeleko Guaka taldea eta goian SUA Fest jaialdiko “rap guda” bat.

LABURRAK.-

Txirrindularitza porrako sarien banaketa

Ostadar SKT antolatzen duen txirrindularitza porrako sariak banatu ziren lehengo ostiralean Ainhoa Tabernan.

Tourreko porrako irabazleak "Gontzal Motor" txartela izan zen eta bigarren saria, berriz, "Iara"-rentzat izan zen.

Zozketaren bidez egokitutako urdaiazpikoak eta taberna onenaren saria ere banatu ziren. Azken hau Ainhoa tabernako kideek jaso zuten.

Honetaz gain, Tour eta Giro lasterketetako txartel onenak ere jaso zuen bere saria, 1000 euro. Irabazleak "Paco Anton" txartela izan da.



Eskupilota eskolako entrenamenduak

Intza K.E.-ko eskupilota entrenamenduak ostegunean, irailaren 12an, hasiko dira arratsaldeko 18:30ean Loidi-Barren frontoian.

Entrenamenduak benjamin eta alebinentzat astearte eta ostegunetan izango dira 18:30etik 20:00etara; infantilak, aldiz 20:30ak arte dute saioa.

Eskupilota eskola 2000 eta 2006 bitartean jaiotako neska-mutuei zuzendua dago. Izena eman nahi duten gaztetxoak astearteetan Loidi-Barren frontoira edo ostegunetan Michelin kirol guneko pilotalekura, 18:30etik 23:30era, hurbildu behar dira irailean zehar.

LOKEko judo eta tenis sailak lanean

LOKEko judo eta tenis sailak gaur hasiko dira 2013-2014 denboraldia prestatzen

Judoko saioak Lasarte-Oriako Udal kiroldegian dira. 7 eta 12 urte artekoek astelehen eta ostiraletan dituzte entrenamenduak 18:30etik 19:30era; 12 urtetik haurrerako gaztetxoek, aldiz, astezken eta ostiraletan 19:30etik aurrera.

Informazio gehiago edo izena eman nahi duten herritarrek Udal kiroldegian hurbildu edo 651 702 285 (Gorka) zenbakira deitu behar dute.

Tenis eskolari dagokionez, arduradunek ordutegi eskaintza aurreko urteko bera izango dela jakitera eman dute. Gainera, lehen bi asteak taldeak antolatzeko erabiliko direla ere adierazi dute.

Tenis eskolako saioei buruz informazio gehiago edo izena eman nahi dutenek pertsonen irailaren 9tik aurrera Kirol guneko tenis pistetara hurbildu edo 647 156 145 telefono zenbakira deitu behar dute.

Buruntzaldea IKT-n izena ematea

Buruntzaldea IKT denboraldia prestatzen ari da eta hori dela eta aurtengo ikasturterako izen emate epea zabaldu du. Era berean, entrenamenduak irailaren 9an, astelheanean hasiko dituztela ere jakitera ematen du.

2013/2014 denboraldiko entrenamendu ordutegia adinaren arabera honako hau izango da: 2006an jaiotako, astearte eta osteguna, 17:30etik 18:15era; 2005ean jaiotako, astearte eta osteguna, 18:15etik 19:15era; 2004an jaiotako, astelheena, asteazkena eta ostirala, 17:30etik 18:30era eta 2003-2002 urteetan jaiotako eta 2001 urteko mutilek, berriz, astelheena, asteazkena eta ostiraletan, 18:00etatik 19:30era dituzte saioak.

Informazio gehiago lortzeko edo izen ematea egiteko www.buruntzaldeaikt.blogspot.com helbidean edo 696 506 632 (Borja) telefonon egin daiteke.

Kirol Ludoteka aste honetan kiroldegian

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak Kirol Ludoteken saioak eskainiko ditu astelheenetik ostiralera, 17:40etik aurrera, kiroldegiko pistan.

Helburua 2013-2014 ikasturtean zehar garatuko eta praktikatu diren jarduerak eta modalitate kirol-ludiko ezberdinak ezagutzera ematea da.

Jarduera hau 2005 eta 2010 urte artean jaiotako haur eta gaztetxoek zuzenduta dago. Eta saio hauek doan izango dira instalazioetako bazkideentzat.

Kirol Zerbitzuko arduradunek oharta arazten dute, parte hartu nahi duten umeak kirol arropaz jantzita agertu behar direla saioetara.

ERRUGBIA.-



Errugbiak badu lekua Lasarte-Orian

Errugbi partida gehiago ikusiko da aurten Kirol gunean

Beltzak Ostadar errugbi taldeko lagunek taldeko lagunak lanean hasi dira. 2013-2014 denboraldia prestatzen hasi dira, izan ere aurten errugbiar gozatzeko aukera gehiago izango da gure herrian.

NEREA EIZAGIRRE

Kirol taldeak hurrengo denboraldia prestatzen hasi dira dagoeneko eta Beltzak Ostadar Errugbi taldeko lagunak ez dira azkenekoak izango. Lehengo asteazkenean hasi ziren lanean eta aurten indar handiagorekin prestatuko dira, errugbiak leku gehiago izango baitu Lasarte-Oriako berdegunean.

Manu Pelaez taldeko arduradunak azaldu digunez, aurreko urtean legez, kadete eta infantil federatuen partidak ikusi ahalko dira Michelingo kirol gunean. Eta beste mailetako partidaz gozatzeko aukera ere

izango dela azpimarratu du, "Zarautz Errugbi taldeko II. Mailako partidaren bat ere jokatuko da. Lasarte-Oriako hainbat gazte igo dira taldera eta etxean jolastea ere nahi dugu".

Partida hauetaz gain, Errugbi Eskolako haurren topaketak ere izango direla aurreratu du.

Entrenamenduak

Baina ez dute zelaian bakarrik lan egingo, besteak beste, errugbia sustatzeko eskoletan kirol honi buruzko hitzaldiak ere eskainiko dituzte.

Era honetara, gazte eta haurrak animatu nahi dituzte kirol hau probatzera eta horregatik, lerro hauen bidez,

entrenamenduetara hurbiltzeko deia egiten die.

Benjamin eta alebin mailako gaztetxoak ostiraletan 18:15ean dute saioa Michelinen. Hala ere, iganderaren batean entrenamendua izango dutela ere aipatu du taldeko arduradunak.

Infantil eskolarrak asteazkenetan eta ostegunetan izango dituzte saioak 17:45ean, Zarautzen.

Infantil federatua eta kadeteek astearteetan Zarautzen dute entrenamendua "ordua oraindik zehazteko dago" eta ostiraletan, 19:15ean Michelinen.

Informazio gehiago edo izena eman nahi duenak telefono zenbaki hauetara deitu dezake: Iñigo Encinas Errugbi eskolako arduraduna, 677 526 041 edo Manu Pelaez, goiko mailetako arduraduna, 666 321 059.

PIRAGUISMOA.-

Chourraut bigarren Espainiako txapelketan

Maialen Chourraut lasarteoriatarra berriro ere lehian ikusi ahal izan genuen abuztuaren 10 eta 11ean Lleidako Pons herrian jokatutako Espainiako Slalom txapelketan. Herritarrek K-1 mailako bigarren postua eskuratu zuen, ekainean ama izan eta gero.

Lasarte-Oriako gaztea finalerdian maila handian lehiatu eta dominak eskuratzeko prest zegoela erakutsi zuen. Finalerako txartela eskuratu zuen bigarrenengo sailkatu bezala, Cadi taldeko Marta Martinezek bakarrik gaititu zuen.

Finalean berriz, Maialenek ezin izan zuen Irati Goikoe-



Maialen Chourraut Joko Olinpikoetako finaleko argazkian. M. CHOURRAUT

txea Atlc. San Sebastian-eko talde kidearen denbora jaitxi, segundo bateko tartea izan zen, eta zilarrezko dominarekin bueltatu zen etxera.

Maialen Chourrautek lanean jarraituko du gogor, 2016 urteko Rio de Janeiroko Joko Olinpikoak baititu helburu.

Agenda

Ostirala 13-Igandea 15, Isla plaza



Erdi Aroko azoka Isla plazan

Erdi Aroko azoka izango da berriro ere Lasarte-Orian. Baina oraingoaz herrialdeko erdigunea utzi eta Zumaburu auzoko Isla plazan izango da hurrengo asteburuan. Isla plazak mendeetan atzera egingo du eta Erdi Aroan murgilduko da. Janari eta artisau postuak, azoka girotzeko kale antzerkiak, haurrentzako jolasak... denetarik izango da.

Bestelakoa

VILLA MIRENTXUN

Asteartea 10, 18:30ean

Irakurlearen txokoa aurkeztuko da. Dinamizatzailea Uxue Alberdi idazlea izango da.

Astigarraga

Argazki lehiaketa

Irailaren 15era arte

"Astiko" Astigarragako Merkatarien elkarteak uda osoan zehar "Astigarragako txokoa" argazki lehiaketa antolatuko du. Oinarriak edo informazio gehiago www.facebook.com/astikoastigarraga orrialdean aurkituko duzue.

Hernani

Musika

PLAZA BERRI

Ostirala 14, 12:00etan

"Kalez Kale Kantari" kantu jira izango da Hernaniko kaleetatik barrena.

Usurbil

Bestelakoa

OIARDO KIROLDEGIA

Igandea 15, 07:00etatik aurrera

Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak Artikutzara irteera antolatu du. Autobusez egingo da joan etorria. Bertan 16 kilometroko ibilbidea egingo da. Izen ematea irailaren 11a baino lehen egin behar da. Informazio gehiago, www.andatzamendizale.info orrialdean.

Lasarte-Oria

Musika

ZULO ARETOA

Asteartea 10, 21:00etatik aurrera

Berlineko Moden Pets eta Pariseko Skategang punk taldeen kontzertua izango da. Sarrera, 5 euro.

Ostirala 13, 21:00etatik aurrera

ASKI DA eta Oreindik taldeen kontzertua gehi DJ Makalaren saioaz gozatze-ko aukera.

Larunbata 14, 21:00etatik aurrera

Doinu elektronikoak izango dira DJ

Maikol Knight & Ben Cosby-ren eskutik.

PARAPETOA

Larunbata 14, 16:00etatik aurrera

III. Parapenasonik jaialdiaz gozatzeko aukera izango da.

Antzerkia

OKENDO PLAZA

Ostirala 20, 22:00etatik aurrera

"Entre Lombrices" kale antzerkia eskainiko dute. Dignitatea existituko ote da heriotza zelatan dagoenean?

Kuriositatea mantentzen al da lur azpiak metro bat zaudenean? Azken epaiako pistarik ba al dago?

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Iraila amaiera arte

Ion Benitez eta Unai Azkaratern diseinu grafiko eta collage-en erakusketa.



Herritarren txokoa

Alboka abesbatzaren entseguak

Alboka abesbatzak entseguak hasiko ditu gaur, 20:00etan.

Herriko abesbatzak 16 eta 65 urte arteko herritarrek animatu nahi dituzte entseguetara hurbildu eta probatzera. Ez da beharrezkoa musika ezagutzarik izan edo abesten jakitea.

Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitzete!

Margo eta marrazki ikastaroa

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak gaztetxo eta helduentzat antolatzen dituen margo eta marrazki ikastaroko izen-ematea irailaren 9, 10, 11, 16, 17 eta 18an egingo da, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Iñigo de Loyola 12 behean duten egoitzan.

Kirol instalakuntzen neguko ordutegia

Udal kirol instalazioetan, kiroldegia eta Kirol Gunea, neguko ordutegia dago indarrean irailaren 1etik.

Kiroldegiaren irekiera ordutegia astelehenetik ostiralera 7:00etatik 22:30era izango da, larunbatetan

9:00etatik 20:00etara, eta igandetan berriz, 9:00etatik 13:00etara.

Kirol Gunearen kasuan, ordutegia honakoa izango da; astelehenetik ostiralera 15:30etatik 22:30etara, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandetan 9:00etatik 13:00etara.

Galdutako arropa

Sorgin Dantzako entsegutan Landaberri BHI-n jendeak ahaztutako hainbat arropa jaso da. Hauek guztiak Ttakuneko bulegoan daude beraz galdu dutenek harrera orduan pasa daitezke jasotzera.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatibak janariaren kontsumo arduratsu, bertakoa eta ekologikoa sustatu nahi du.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteak lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Proiektua gustuko dutenentzat ateak zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Hemeroteka

Duela 1075 ale

TXINTXARRI aldizkarian hamaika urte hauetan pertsonaia asko elkarrizketatu ditugu. 1995eko ekainean Jose Pesado zine proiektionistarekin solasaldi ederra argitaratu zen. Honean bere bizipenez gain, gure herriko zinemaren historiari ere hitz egiten zen.

Jose Pesado 1963an etorri zen gure herrira. 1970ean Añorgako zineman hasi zen lanean eta 1973an Egiako Dunixi zineman. 1974ean Lasarte-Oriako Tedoso Zinemara etorri zen.

Elkarrizketan "lehenik Luistarren egoitzan ematen ziren pelikulak eta ondoren zinema zaharrean" aipatzen du.

Herriko zine-klubeko kide izan zen eta 1966an, Antonio Merceoren "Trotín Troteras" Parisen saritua izan zenean, "Lasarte-Oriatik deitu genion eta Lasarte-Orian pelikularen "estrenaldi nazionala egin zen" aipatzen du.

Gainera, urte horretan Tedoso zinema inauguratu zela ere gogoratzen du eta hau "Tolosako Leidor Zinemaren atzetik, Gipuzkoako onena" zela nabarmetzen zuen.

Hau guztiaz gain, zinemaren krisiaz, Donostiako Zinemaldiaren eskutik etortzen ziren filmak, lehen pelikula erotikoez ere hitz egin zuen. Eta pelikula baten proiektzioa debekatu zirela ere aipatu zuen bere solasaldian.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

ADURIZ DE LASARTE S.A



Odolkia- Solomo ontzutua
Tripakiak- Saltxitxak
Etxeko txorizoa

Solomoa baratxuritan
Basurde burua
Baserri patea

Txistorra

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

2013 - 2014 Euskara Ikastaroak

- Maila guztiak eta ordutegi zabala. Txandaka aritzeko aukera
- Astelehenerdik ostegunera
- AUTO-İKASKUNTZA (mintzarena taldean)

Azterketetarako prestaketa

- Hizkuntz eskakizunak eta HABEren 1, 2 eta 3 maila (EGA)
- Titulu homologatuak: Osakidetza, Hezkuntza, Ertzaintza eta Administrazioarako balio dutenak

Ikastaroaren iraupena: Irailaren 19tik ekainaren 20ra arte
Diru-laguntzak dirugu. Galde ezazu!
Matrikulaldia: Irailaren 2tik 18ra
Bulego ordutegia: 08:30-19:15 // tel: 943 36 16 21



Lasarte-Oriako Udal Euskaltea

Behoko kale bidea 1

Tf: 943361621

e-maila: euskaltea@lasarte-oria.org

Euskara

ikasteko aukera 2013-2014



ona eta
merkea

Diru-laguntzak

%40 - %75

Edozein

lasarteoriatarrentzat
matrikularen %40
arteko diru-laguntza.

Gurasoentzat,
merkatarientzat eta
egiraleentzat %75
artekoa.



Udaleko euskaltea

- Helbidea: Beko kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltea@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 18ra

Munteri-AEK euskaltea

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aei.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 2tik 27ra

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org



LASARTE-ORIAKO UDALA

